



558 eredia

Ekitaldia

Aitorpenaren epealdiari dagokion urtearen azken zenbaki biak jarri beharko dira.

Epealdia

Adierazi ondokoaren arabera:

Hiruhileko aitorpenetarako:

HIRUHIL1 = 1. hiruhilekoa	HIRUHIL2 = 2. hiruhilekoa	HIRUHIL3 = 3. hiruhilekoa	HIRUHIL4 = 4. hiruhilekoa
---------------------------	---------------------------	---------------------------	---------------------------

Adibidea:

2018eko laugarren hiruhilekoa:

Ekitaldia: 2018 Epealdia: HIRUHIL4

Hileko aitorpenetarako: aitorpenaren epealdiko hilaren izena.

Adibidea:

2018eko urria:

Ekitaldia: 2018 Epealdia: Urria

Aitorpen osagarria

Aitorpen berriaren xedea lehenago aurkeztutako ekitaldi bereko beste aitorpen batean agertu behar izan arren bertan oso-osorik jarri gabe geratu ziren erregistroak sartzea bada, X jarri behar da. Aitorpen osagarrian aurrekoan sartu gabeko erregistroak soilik sartu behar dira.

Ordezko aitorpena

Aitorpenaren xedea ekitaldi bereko aurreko beste aitorpen bat, datu batzuk oker izan dituen, oso-osorik deuseztatzea eta ordezkatzea bada, X jarri behar da. Ordezko aitorpen batek aurreko aitorpen bakar bat baino ezin du baliogabetu.

Identifikazioa

Identifikazio-datuak bete beharko dira.

Establezimendua

Eragiketen hiruhileko aitorpen honen establezimenduaren datuak agertaraziko dira.

Aitorpen bateratua izanez gero, haren ordez "Aitorpen bateratua" esapidea jarriko da eta ez da JEK beteko.

Lehengaiak

Epealdian zehar erabilitako lehengaiak jarriko dira, bai eta beraien pisua eta, honelakorik badago, estraktu lehorraren portzentaia.

Gertatutako garagardoaren mugimendua

Garagardo bolumena hektolitrotan eman behar da, tenperatura 20° C-koa dela, bi hamartarrekin; kopuruak gutxiagoz edo gehiagoz biribildu behar dira: hirugarren hamartarra 5 baino txikiagoa denean gutxiagoz eta handiagoa denean gehiagoz.

Jarri behar diren epigrafeak honako hauek dira: Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/92 Legearen 26. artikuluan ageri direnak. Zergapekoak bete behar duen lehen zutabearen ez da epigraferik jarri behar, % 0,5 vol-eko edo hortik beherako hartutako alkohol-gradu bolumetrikoa duten produktuentzat gordeta baitago.

- (A) *Hasierako izakina*. Epealdiaren hasieran establezimenduan dauden garagardo kopuruak, aurreko epealdiko amaierako izakinarekin bat etorri behar dutenak.
- (B) *Eginda*. Epealdian zehar, establezimenduan, gertatutako garagardoaren kopuruak.
- (C) *Sarrerak*. Establezimenduan sartu diren garagardo kopuruak, hots, horretarako ezarritako eranskin legez batu behar den agiria jaso den egunaren arabera epealdi honi egotzi beharko zaizkionak eta beraien jatorriaren arabera dagokien lerroan jarrita:
- *Barne eragiketak*. Araubide etengarrian, estatuaren lurralde eremuko lantegi eta zerga gordailuetatik datozenak jarri beharko dira. Zerga gordailuei dagokienez, garagardoaren sarrerak ere bai jarriko dira, baldin eta barne lurralde eremuan sortu badute zerga; sarrera horiek enpresarioek egindakoak izan behar dute eta nahitaez bidali behar dira estatuz kanpo baina Europako Batasunaren barruan dagoen eremura.
 - *EBko gainerakoa*. Establezimenduan sartu den garagardoa zainpetu beharko da, araubide suspentsiboan, eta barrukoa ez den erkidegoaren lurralde esparruan kokatuta dauden biltegiatzaile baimenduetatik datorrena.
 - *Inportazioa*. Establezimenduan, garagardoa, sartutako kopurua jarri beharko da, erkidegoaren lurralde esparru kanpotik datorrena.
- (D) *Irteerak*

Zergaduna

- Batez besteko Plato gradua. Epigrafe berera biltzen diren garagardoek, salbuetsita ez dagoen kontsumorako ateratakoek, Plato gradu ezberdinak baldin badituzte, orduan batez besteko Plato gradu haztatua adierazi beharko da.

Adibidea:

1.000 hl garagardo, 12ko Plato graduok

2.000 hl garagardo, 13ko Plato graduok

3.000 hl garagardo, 14ko Plato graduok

$$\text{Batez besteko Plato gradu haztatua} = \frac{(1000 * 12) + (2000 * 13) + (3000 * 14)}{1000 + 2000 + 3000} = 13,33$$



- *HI bolumena*. Garagardoaren kopuruak, araubide etengarria amaituta eduki ez eta salbuespen kasuetarik batere ezartzen ez dutenak. Penintsulara, Balearretara eta Kanarietan irten den garagardoa sartuko da.

Zerga gabe. Urtendako garagardoaren kopuruak, araubide etengarrikoak edo zerga salbuetsita dutenak, baldin eta beraien helmuga hauetarik bat bada:

- *Barne eragiketak*. Araubide etengarrian, lantegi eta zerga gordailuetara egindako bidalketak, estatuaren lurraldearen eremuan kokatuak.
- *EBko gainerakoa*. Araubide etengarrian egindako bidalketak, beraien helmuga estatuaz kanpo baina Europako Batasunaren barruan dagoen eremua delarik. Kontzeptu honen barruan sartzen dira, gainera, egoitza barrukoa ez den erkidegoko lurralde-eremuan duten eta, sortutako zergaren ondorioz, xede horrekin zerga gordailuan sartu diren enpresaburuei bidalitako produktuak.
- *Esportazioa*. Establezimendu kanpo urtendako garagardoa, beraien helmuga Europako Batasunaren lurralde eremutik kanpo badago.
- *Salbuetsitako eragiketak*. Garagardoa urtendako kopuruak jarriko da, Zerga Bereziei buruzko 38/92 Legearen 9, eta 21. artikuluetan araututako salbuespen kasuen bat ezartzen dutenak.

(E) *Enpresaren eragiketetan enplegatua*. Gero beste ekoizpen prozesu erabiltzen den garagardo kopurua.

(F) *Amaierako izakina*. Establezimenduan, epealdia amaitueran, garagardotik dauden kopuruak.

(G) *Diferentzia*. Garagardo mota bakoitzeko, honako eragiketa honen ondoriozko kopuruak:

Hasierako izakina + Eginda + Sarrerak - Irteerak - Enpresaren eragiketetan enplegatua - Amaierako izakina

$$G = A + B + C - D - E - F$$

Jasoketak. Establezimenduan, jasotako garagardoaren kopuruak jarriko dira, baldin eta beraiek jatorriko establezimendutik urteten duten eguna epealdiaren barrukoa bada.